

Informazio orokorra. Parke naturalak giza ustiaketak eta okupazioak eraldatu ez dituen eremuak dira. Bertako landaretzaren, faunaren zein egitura geomorfologikoaren berezitasunak baliabide natura-
len eta erabilera publikoaren aprobetxamendu egituratua eskatzen du.

AIZKORRI- ARATZ INTERPRETazio ZENTROA (PARKETXEA)






Iradakizunak. LIZARRATE-SAN ADRIANGO TUNELA
San Adriango tunela barrualdeko Santiago Bidearen parte da.
Harkaitza zehar katzen duen tunel naturala da, Gipuzkoa eta Araba batzen dituena. 70 metroko luzera du eta barruan izen bereko baseliza du kokaturik. Bertaraino Erdi Aroko gaitzada bat heltzen da.

Parkeetan Parke Naturalaren interpretazio-erakusketak kokaturik dago, eta honen bidez, inguruko landareta-
ren, faunaren, kulturaren eta etnografiaren inguruko informazioa jasotzen dugu.
Mitxarroak gidatzen gaitu erakusketan barrena, eta zonaldeko baliabide naturalen berritagarriaren inguruko instalazioen barruan energia berriztagarrien inguruko informazioa ere topa dezakegu, horretara bideratutako eremuan.

alava turismo. eus
EUSKADI
BASQUE COUNTRY
ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA
lautur
[autada]ko turismoa
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava
EUSKADI
BASQUE COUNTRY
alava turismo. eus

AIZKORRI-ARATZ

PARKE NATURALA



Aizkorri-Aratz Parke Naturala, Arabako eta Gipuzkoako herrialdeen artean kokaturik dago, eta aipagarria da bertako pagadi eta kare-haitzengatik. Euskal Autonomia Erkidegoko mendi gailurrik garaiena bertan dago, Aitxuri (1551m) izenekoa, eta kondairaren arabera, bertako gailurretan Mari jainkosa mitologikoa topa dezakegu.

Substratu gehiena kare harri urgonioek osatzen dute, eta honen higadura fenomeno karstiko izugarriak sorrarazten ditu. Esaterako, Lezeko haitzuloa, San Adriango tunela, Urbiako zelaiak, Arantzazuko amildegia...

Parke Naturalean baso autoktono ugari kontserbatzen dira: pagadiak, harizti kanduga-beak... Mendietako alderik garaienetan landaretza urriagoa da eta latxa ardiarentzako larreak hartzen dute lekua, mendi hauetan oso ohikoa.



INTERPRETAZIO ZENTROA



Eraikin berean Parkearen Interpretazio Zentroa eta Energia Berriztagarrien Zentroa kokatzen dira, Asparrena azken hauen aitzindari izanik.

“Mitxarro”aren laguntzaz, inguruko baliabide naturalak ezagutuko ditugu. Animalia ederra da, atsegina eta kurioa, udalerriko gai eta balore desberdinak elkarreraginean jartzen lagunduko diguna: energia, pagadi baten ekologia, karsta, aztarna arkeologikoak, arkitektura, komunikazioak, Araiko fundizioa, gaztandegiak, asparrendarren bizimodu eta ohiturak...

Animalia honen eskutik udalerriko ondare naturala eta kulturala ezagutuko dugu, eta dena osotasunean ulertu. Garapen jasagarria etorkizun bakarra izanik.



PARKETXEA



Intuxi kalea 48. 01250, Araia
Telefona 688 62 99 32 - 945 38 69 64
parketxe.aizkorriaratz@gmail.com

• Neguko ordutegia:
Asteartetik igandera: 10:00-14:30 eta 16:00-18:00
• Udako ordutegia (apirila-iraila)
Asteartetik igandera: 10:00 14:30 eta 16:00-19:00

• Astelehenetan itxita.

Taldeentzako bisita gidatuak antolatzen dituzte.
Baita jarduerak hilabetero ere.